

## BERRI OROKORRAK

2019ko otsailaren 1ean 18. zenbakia



**Euskaraz Bizi!!!!**

### DEKALOGOIA: 10 AHOLKU EUSKARAZ.

Zenbat gairen inguruko dekalogoak ezagutzen ditugu? Osasuna, elikadura, ingurumena, ... Horien guztien ondoan, zergatik ez haurrak euskaraz hazteko dekalogoia? Hona hemen lehenbiziko 3 gomendioak:

#### **Etxean...**

1. Erabili hizkuntza jolasteko eta jolasa hizkuntza barneratzeko: aho korapiloak, jostailuak, onomatopeiak, haurren hizkera ... Dena izan daiteke jolas, gazatu!
2. Baliatu euskarazko kantuek etxeko edozein egoera festa bihurtzeko. Estresaren kontra, seme-alabekin dantza egin eta ozenki abestu: etxeko kontuetarako, jolasteko, urtebetetze eta sehaska kantuek... Eta irrikaz bazaud, ez itxaron eta haurdunaldian bertan hasi!
3. Aukeratu marrazki bizidunak. Telebistaren aurrean pasatutako orduak hizkuntza aberasteko denbora baita. Pantaila txikietarako ere bilatu app-ak euskaraz!



**GURAS.O.S.ek** dei egiten dizu, **otsailaren 10ean, igandez, eguerdiko 12:00etan, Lasarteko MANUEL LEKUONA zine aretoan** egingo den **bideo proiektioan parte hartzera.**

**Ekitaldiaren garrantziaz** jabetuta, **aretoa, betetzera** animatzen dizu! Izan guraso, haur, nerabe, gazte konprometitua!!!! **Zatoz, GURAS.O.Sek Udarregi ikastolan grabatutako bideo proiektiora!**

Ekimen eta ekintza ugari dira GURAS.O.Sek osasunaren eta adostasunaren alde antolatutakoak eta bultzatutakoak.

Oraingo honetan, dei zabala egiten digu eta erronka ederra proposatzen digu: **BETE DEZAGUN MANUEL LEKUONA ARETOA!!!! EZ HUTSIK EGIN!**

### 1.-Ikastola eguna.

Jakinarazi nahi dizuegu 2019ko ikastola eguna **ekainaren 15ean**, larunbata, ospatuko dugula.

### 2.-2019/20 ikasturterako matrikula-kanpaina.

Gogorarazten da **otsailaren 8a bitarte** izango dela **2019-2020 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea.**

**Udarregi ikastolak** zera eskaintzen dizue:

- ✓ **0 urtetik 16 urtera** bitarteko irakaskuntza arautua.
- ✓ **Heziketa euskalduna:** euskaraz ikasiz eta biziz, Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgilduz.
- ✓ **Balore eta jarrerren** lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- ✓ **KiVa Ikastola:** Eskola Jazarpenaren (bullying) aurkako programa finlandiarra indarrean 2017ko urtariletik aurrera beste 57 ikastolekin batera.
- ✓ **Irakaskuntza Eleanitza:** D eredu, ingelesa 4 urtetik aurrera, gaztelania Lehen Hezkuntzaren 2. mailatik aurrera, eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- ✓ **Hizkuntzetarako irakasle** espezialistak.
- ✓ **Orientazio Departamendua:** tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.

- ✓ **Heziketa behar bereziak** dituztenentzat Laguntza-Gela.
- ✓ **Informazio eta Komunikazio-Teknologiak:** Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- ✓ **Garraio** zerbitzua.
- ✓ **Jangela:** Bertan prestatutako garaian garaiko janaria, herriko elikagaiak eta elikagai ekologikoak. Dieta orekatuak eta osatuak.
- ✓ **Eskolaz kanpoko jarduerak:** kirolak, dantza, xake, antzerkia.
- ✓ **Ikasleen goizeko zaintza:** 08:00etatik 09:00etara. Irailean eta ekainean **arratsaldeko zaintza** ere bai, 14:30etik 16:30era.

Eta aurreko guztiaren euskarri gisa:

- **50 urteko esperientzia** Usurbilen.
- **Irakasleria** egonkorra eta berrikuntza pedagogikoez arduratua.
- **Gestio demokratikoa:** guraso eta langileen partaidetza zuzena arlo guztietan.
- **Erakunde** irekia, anitza eta iritzi guztietara zabalik. **Herri Onurako Kooperatiba. Guraso Kooperatiba.**
- **Kalitatezko Hezkuntza** lortzen lagunduko digun Kalitate Aurreratuaren Kudeaketa Sistemarekin konprometituta.


Informazio gehiago izan dezazuen, honakoa kontuan har ezazue:

Matrikulatzeko epea
○ Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra (biak barne)
Matrikulatzeko ordutegia
○ Aldez aurretik <u>Ikastolara</u> deituz, ordua adosteko (943-361216) <b>(3 urtetik-16urtera)</b>
Matrikula gauzatzeko ekarri beharreko agirien fotokopiak
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Udaleko bizikidetzaz-ziurtagiria</li> <li>○ Familia-liburua</li> <li>○ Gurasoen NAN</li> <li>○ Gizarte Segurantzako txartela</li> <li>○ Kontu korrante baten zenbakia (IBAN eta BIC kodeak)</li> <li>○ Haurren argazki bat</li> </ul>

## OHARRAK ETAPAKA



Ez dago berririk.



### **1.-HH 3ko familiei zuzendutako bilera pedagogikoa.**

HH 3ko familiei zuzenduta, bilera pedagogikoa egingo dugu.

Noiz? **Asteartean**, otsailak 5, arratsaldeko **16:45ean**.

Non? **Seme-alabaren gelan**.


Oharra: zaintza zerbitzua egongo da.

### **2.-Santa Ageda bezpera.**

Astelehenean, **Santa Ageda bezpera** ospatuko dugu. Horretarako, arratsaldean, haurrek **baserritarrez jantzita** etorri behar dute.

Arratsaldeko **16:00etan** LHko ikasleekin **herriko frontoian** elkartuko gara abesti batzuk kantatzera.

**Haurrak herriko frontoian jaso** beharko dituzue. **Autobusa** hartu behar duten ikasleek irakasleok arduratuko gara.



### **1.-Santa Ageda bezpera.**

**Astelehenean**, otsailak 4, eguraldiak laguntzen badu, Santa Ageda bezpera ospatuko dugu. Horretarako, **arratsaldean**, hurrek **baseritarrez jantzita** etorri behar dute.

Arratsaldeko 14:45etik LHko ikasle eta irakasleok kalez kale ibiliko gara. 16:00etan HHko eta DBHko ikasle eta irakasleekin herriko frontoian elkartuko gara.

Haurrak **herriko frontoian jaso beharko dituzue**. Autobusa hartu behar duten ikasleez irakasleok arduratuko gara.


### **2.-LH 3ko ikasleen irteera.**

Otsailaren 13an LH 3ko ikasleek Tolosara egingo dute egun osoko irteera eta bertan Topik museoa bisitatuko dute.

### **3.-LH 5eko eta LH 6ko familiei zuzendutako oharra.**

Larunbat honetan LH 5eko eta LH 6ko talde kiroletan dauden neska-mutilekin irristaketa topaketa dugu Astigarragan.

Futbola eta eskubaloia egiteaz gain, parte hartzea, parekidetasuna, kirol-aniztasuna eta ohitura osasuntsuak sustatu nahi ditugunez, gurasoen laguntza ezinbestekoa zaigu. Animatu zuen seme-alabak parte hartzera!



### **1.-Santa Ageda bezpera.**

Astelehenean, otsailak 4, eguraldiak laguntzen badu, Santa Ageda bezpera dela eta, **arratsaldez** ikasle eta irakasleak kantuan aterako gara herrian zehar. Etapa bakoitzak ibilbide ezberdinak egingo ditugun arren, 16:10 inguruan denok herriko pilotalekuan elkartuko gara.

Hori dela eta, gogorarazi **arratsaldez ikasleak baseritarrez jantzita** etorri behar dutela.

### **2.-DBH-ko ikasleen argazkia.**

Udarregi Ikastolak Alexia programa erabiltzen du ikasleen kudeaketarako (matrikulak, notak,...). **Gurasoentzat App-a** prestatzen ari gara familiak informazioa zuzenean izan dezazuen, baina horretarako, ikasleen argazkia beharko genuke. Eskertuko dizuegu **ikaslearen argazkia** [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera bidaltzea edo idazkaritzara ekartzea ahalik eta azkarren, ikaslearen izen abizenak zehaztuz. Mila esker!